

tropotécnica, aunque no biomédica: un humanismo situado más allá del posthumanismo, el cual se ha aliado con la revolución digital para acabar con la creatividad del ser humano. Para ello la perspectiva debe cambiar (106).

En conclusión, se trata, según el autor, de mejorar la vida humana sin caer en los extremismos del posthumanismo radical que pretende acabar con la condición humana. Pero sin caer tampoco en la posición de quienes perpetuar la actual condición humana sin aceptar ningún cambio ni mejora en ella. Es lo que pretende Sloterdijk en *Has de cambiar tu vida*. Una posición que se hace eco del superhombre de Nietzsche y de la anunciada muerte del hombre por Foucault. No se trata de elegir entre humanismo o posthumanismo, sino de "situarse más allá del posthumanismo y, al mismo tiempo, presentar una posición crítica con el humanismo antropocéntrico." Son las últimas palabras del libro.

Xabier Insausti



INNERARITY, Daniel
Una teoría de la democracia compleja. Gobernar en el siglo XXI

Madrid : Galaxia Gutenberg, 2020
 446 p. ; 21 cm.
 ISBN: 978-84-17971-46-5

Demokraziaren krisiaren aurrean zer egin dezakegu? Hori da Daniel Innerarityk liburu honean jorratzen duen gaia. Gaurkotasan handiko gaia da. Esaterako, Cambridge Unibertsitateko Centre for the Future of Democracy erakundeak plazaratutako txosten baten arabera demokraziaren sinesgarritasuna kolokan dago mundu osoan. 1973tik Cambridgeko Unibertsitateko ikertzaileek gai hau aztertzen dute eta aurten, munduko herritarrek sistema demokratikoarekin duten atsekabea maila markak haustea lortu du. 154 herrialdetako herritarren %57k, tartean Estatu Espainiarrak, demokraziarekin "pozik ez" daudela adierazi dute. Cambridgeko Unibertsitatea duela 40 urte txosten hori egiten hasi zenetik ezagutzen den tasarik altuena da.

Innerarityrentzat demokraziaren mehatxu nagusia sinpletasuna da (11. orr). Liburuaren lehenengo bi kapituluetan jorratzen duen tesiaren sarrera lantzen du. Bere ustez demokrazia pentsatzeko beste modu bat behar da, eta gobernatzeko beste era bat. Behintzat, baldin eta zentzurik badu demokrazia gure gizartearen errealitate konplexuarekin bateragarria izan dadin saiatzek. Euskal filosofo politikoak kritikatzeko duen sinpletasunak bi bertsio ditu. Batetik, gaur egungo munduaren eraldaketetara ez egokitzea eta bestetik, praktika politikoen multzoa, agian aurretik berrikuntza kontzeptuala izan ez dutelako, gabezia hori larriagotzen dute, borroka politikoa sinplifikazio interesatu gisa eraturaz (13. orr). Finean, Innerarityren aburuz, sofistikazio teorikoari uko egiteak, sinplifikazio interesatuaren aldeko borrokan hobekien diharduenari mesede egiten dion praktika politiko bat sortzen du. Gai konplexuen logika ulertzeko ez du ziurtatzen gai izango garenik gai horiek gobernatzeko, baina Innerarityk

argi dauka konplexutasunari egokitutako teoriarik gabe akats praktiko asko egiten ditugula (17. orr). Horrela, mundu garaikidea globalizazio, jakintza eta konplexutasun kategoriekin bir deskribatu behar da. Politikak jada ez die aurre egin behar XIX. edo XX. mendeko arazoei, baizik eta XXI. mendekoei, eta horiek gizarte-konplexutasuna eta interdependentziak kudeatzeko gaitasuna eskatzen dute. Demokraziak polisetik estatu nazionalera eta demokrazia zuzenetik ordezkatzailerako igarobidea egin badu, ez dago arrazoirik pentsatzeko ezin diela aurre egin erronka berriei, baldin eta arkitektura politiko egokia ematen bazaio (24. orr). Demokraziak bakarrik salbatu dezake demokrazia, baina kontzeptuak, metodoak eta mailak ohituak gaudenon oso bestelakoak izan behar dute.

Marko horretatik abiatuz, bere tesia azaltzeko Innerarityk hiru ardatz lantzen ditu liburuan: Konplexutasunaren ulermena, gizarte konplexuen gobernu eta demokrazia demokratizatzea. Konplexutasunaren ulermenari dagokionez, egileak gizarte zientzien tresna tradizionalak kritikatzeko, filosofia politikoa barne; izan ere, estatikoegiak izan direla uste du, eta ikuspuntu metodologikotik, konplexutasunari lekua egiteko, ikuspuntuak biderkatu eta hurbilketa polizentrikoa garatzea beharrezkoa dela pentsatzen du (65. orr).

Innerarityk, beste politologo batzuk bezala (Ahedo 2012), zalantzan jartzen du natura eta gizarte zientzien arteko banaketa. Globalizazioaren garaian, gizakiek bizi ditugun baldintzak konplexuagoak dira. Kaosa eta auto antolaketa, naturan zein gizartean, konplexuak diren sistema dinamikoen logiken arabera sortzen dira. Fisikaren eta kimikaren sistema molekularretan, biologiaren sistema ekologikoetan eta garunaren sare neuronaletan ikertzen den konplexutasuna, ekonomian eta gizarte-zientzietan ere aurkitu dezakegu (70. orr). Gaur egungo gizarteetan ikintza bakoitzak ez du emaitza segururik, ezta aurreikusteko modurik ere. Hau da, hain zuzen, politikarako pentsamendu konplexu eta ez-linealaren funtsezko irakaskuntza. Hortaz, politikak, gero eta handiagoa den ziurgabetasuna kudeatzeko, estrategia gogoetatsu eta sotilagoekin moldatzen ikasi beharko du, (77. orr).

XXI. mendeko konplexutasunak ez du zerikusi handirik gure nozio politiko nagusiak sortu zireneko garaiarekin. Horregatik, Innerarityrentzat gure garaiko arazo nagusia demokrazia gaur egungo mundura egokitzea da, haren printzipio arauemaileak sakrifikatu gabe (96. orr). Modernitatean diseinatutako mundu politikoa, –neurri handi batean haren oinordekoak gara–, zientzia mekanikoaren paradigmatik eta mundu naturalaren kontra jarreran pentsatuta izan zen. Horrela, bizitza politikoa bizitza naturalaren kontrakoa litzateke (97. orr). Baina zientzia garaikidearen eraldaketek gizarte-bizitza eta haren gobernu beste modu baten pentsatzeko aukera aztertzea bultzatzen gaituzte. Konplexutasunaren ulermena atala bukatzeko, Innerarityk bere ondorioak aurkezten ditu. Egungo munduaren konplexutasuna gobernatzeko gobernu-sistemarik egokiena demokrazia da. Horrela, konplexutasuna demokrazian sakontzeko aukera paregabea litzateke (108. orr).

Liburuaren bigarren atalean gizarte konplexuen gobernu jorratzen da. Innerarityren aburuz, estatu nazionalako erakunde baliokide funtzionalak bilatu behar dira, interdependentzia eta poli zentralismo egoera berriekin bateragarriak izan daitezten. Agortu dena ez da politika, politikaren forma jakin bat baizik, zehazki, lurraldean mugatutako eta politikoki integratutako gizartearen arari dagokiona. Horrela, politikak hierarkiatik heterarkiarara, zuzeneko agintaritzatik komunikazio-konexiora, heteronomiatik autonomiara, salto egin behar du. Beharrezkoa den jakintza sortzeko moduan egon behar da –ideiak, tresnak edo prozedurak–, sare forman eta modu transnasionalean jarduten duen ezagutzaren gizarte modertzeko (149 orr).

Filosofo politikoaren ustez, estatua pentsatzeko era aldatu behar da. Kontrol bertikaleko forma tipikoez gain, hierarkikoak ez diren beste aukera batzuk aztertu beharko lirateke, negoziazioaren eta deszentralizazioaren bidez, zeharkakoak eta informalak diren proposamenak lantzeko aukera zabaldu behar da. Gizarte konplexuetan boterearen baliokide funtzionalak sortu behar dira (163 orr) eta horretarako administrazioaren kontzeptua ber pentsatu behar da. Innerarityk administrazioaren garrantzia azpimarratzen du. Demokrazien azpiegitura burokratikoak funtsezkoa da, bertan gure demokraziaren kalitatea erabakitzen baita, gutxienez legerian edo gobernuan bezainbeste (183 orr). Horregatik

“administrazio integratzaileaz” ari da, administrazio demokratikoaren kontzepturik egokientzat jo daitekeena. Administrazioa sistema ireki gisa ulertzen den heinean, bere logikan, gizarte zibilak izan dezakeen eragina barneratu behar da (186 orr). Administrazio publikoak gizarte-sistema biziak badira, ikasteko prest egon behar dute, batez ere jaio zireneko baldintzak nabarmen aldatu direnean eta jarduteko baldintzak aldatzen direnean (192 orr).

Liburuaren hirugarren eta azken ardatza Demokrazia demokratizatzeari buruz dihardu. Innerarityk atal honen hasieran bere tesia adierazten du: Demokrazia solik bizi daiteke gizartearen konplexutasuna areagotzen bada, baina konplexutasun horrek berak, demokrazia mehatzaten duela dirudi. Ez da bakarrik gizarte konplexuagoa bihurtu dela, baizik eta demokratizazioak berak areagotu egiten duela konplexutasun sozialaren maila. Eta honen aurrean, irtenbide onenak demokratikoenak dira: adimen kolektiboaren lankidetzeta eta antolaketa instituzionala indartzea (237 orr).

Baina politikak bere gain hartu behar dituen gaiak edonor ulertzeko azaltzea, zaila suertatzen da. Gai batzuek informazio-karga handia dute, edo beste batzuei egiten diete erreferentzia edo erabaki zailak eskatzen dituzte. Ez dago oso argi zer gaitasun mota behar den politika ulertzeko eta politikan parte hartzeko. Innerarityren aburuz, konponbide demokratikoenei ekin aurretik, adimen kolektiboa indartu, alegia, banakako adimena trebatu, sinplifikazio estrategiak landu eta adituengana jo behar da. Bere ustez, norbanakoaren ikuspegitik, formazio politikoaren bitartez, kompetentzia politikoak landu behar ditugu. Baina, bereziki, gaitasun kolektiboak jorratu behar ditugu, lankidetzan sakonduz eta gobernu adimendunen sistemak erabiliz. Banakako prestakuntzaren bidez konplexutasuna murriztea ez da nahikoa. Politika gizarte-ekintza bat da, eta bere arazok irtenbide kolektiboak baino ez dituzte (245-260 orr).

Hausnarketa horretatik abiatuta, Innerarityk hauteskunde osteko demokrazian sakontzen du. Izan ere, hauteskunde-ordezkaritzak, ezagutzen dugun moduan, ez du ahalbidetzen mugaz gaindiko edo denboran urrun dauden arazoez arduratzea, ez ditu emakumeak behar bezala integratzen, eta ez ditu ingurumenari buruzko gaiak egituratzen (268 orr.). Gakoa ez da ezer ezabatzea, ez hauteskundeak, ez ordezkaritza, ez hauteskunde-erakundeak, konplexuagoak eta inklusiboagoak egitea baizik. Horregatik “Demokrazia Konplexuaren” alde egiten du egileak. Ordezkaritza eta deliberazioa barneratzen duen demokrazia mota honek bitartekaritza politikoko prozesu jakin batzuen bidez bermatzen den berdintasun politikorako deia lizateke. Horrela, herri-adostasunaren eta emaitzen arteko aurkakotasun antzutik harago joan daitekeen –gaur egungo populisten eta teknokraten arteko antagonismoak aurkakotasun honetatik bizi da– legitimitate kontzeptua sortzen da (311 orr.). Erakunde demokratikoak berdintasunean arazoitzen dira, eta ez ordena hutsean edo aldaketa hutsean. Hori ulertu dutenak soilik, gai izango dira kontserbadoreek eta populistek inposatu nahi diguten esparru mentaletik kanpo existitzen den demokrazia pentsatzeko (334 orr.).

Innerarityntzat, sistema politiko adimentsuenak demokraziak dira, baina, era berean, beren legitimitate-estandarrei eutsi nahi badiete, adimen kolektibo gehiago garatu behar dute. Baliabide kognitibo hori hobetu egin behar da. Izan ere, gaur eguneko demokraziek kudeatu behar dituzten arazo gehienak, gehiago eta hobeto jakitea eskatzen dute, ezin dira solik borondate politikoa edo aginpidearekin konpondu (339 orr.). Aurre egin beharreko eronkei erantzuteko, gure demokraziak baliabide kognitiboak hobetzeko gai izan behar dira. Gobernuaren azpiegitura kognitiboa hobetu behar da, berdintasun demokratikoaren printzipioa sakrifikatu gabe (339. orr.). Horrela, gizarte demokratikoen erronka nagusienari aurre egin ahalgo diogu: sistema konplexuak gobernatzeko ziurgabetasuna eta ezjakintasuna kudeatzeko ahalmena lantzea.

Kontrolera eta hierarkiara ohituta dagoen politikak muga berriak kudeatu behar ditu, adimen kooperatiboa garatu, konfiantza berreraiki eta erabakien ondorio sistemikoetan pentsatu (344 orr.). Baina hori gerta dadin espezializatuta, bereizita eta askotan elkarren artean deskonektatuta dauden, profesional adituen jakintzan oinarritzen den sistema batetik, esperientzia, ikuspegi eta berrikuntza mota anitzak modu adimentsuan egituratzera pasa behar harko ginateteke. Horretarako, jakintza partekatze prozesuak eta borondate kolektiboko

prestakuntza-prozesuak behar dira eta hori ezin da egin hierarkia edo aldebakartasuna bezalako tresna klasikoek bitartez. Kontzeptu horiek ez daude dibertsitatea lantzeko pentsatuta, konplexutasun soziala erreprimitzen dute. Hortaz, Innerarityren iritziz, demokraziaren etorkizuna ezagutzaren gizarateak planteatzen dituen erronken mailan egoteko gaitasunaren mende dago (348 orr.).

Azken finean, adimen kolektiboa hobetzea da kontua, gizadiaren erronka handia. Izan ere, begi bistakoa da, gure arazo gehienak modu kooperatiboan baino ezin direla konpondu, elkarrekin pentsatuz eta jardunez (353 orr.). Innerarityk Hanna Arendt (1993) aipatzen du politikan mirariak itzaroteko eskubidea dugula esaten duenean. Gizakiek aske eta komunitatean jarduten dutenean, sinesgaitza eta kalkulazina dena egiteko moduan daude. Euskal filosofo politikoak hitz horiek demokraziaren definizio gisa interpretatzen ditu, eta, zehazki, bizitza demokratikoa ahalbidetzen duen adimen kolektibo horren definizio gisa (355 orr.). Dena den, errealtateari begirada gordina eskeintzen dio Innerarityk eta gaur egungo egoera tamalgarriztat jotzen du, iritzi publikoa hitz horien kontrakoa esaten diguten diskurtsoz beteta dagoela onartuz. Baina esperantzarako zirrikitua erakusten du. Oraindik politika gizaratearen indar eraldatzaile gisa ulertzen dugunok, ameslariak dirudigu, baina zergatik itzaropen horri uko egin? Jakintzaren gizaratean jendartea, oro har, gutako bakoitza baino adimentsuagoa izan daitekeela esaten da. Baina kontrakoa ere egia da: denok batera banaka izan gaitzkeen baino traketsagoak izaten ari gara. Innerarityren ustez, egungo gizarte demokratikoen arazo nagusia lehenengoa lortzea eta bigarrena saihestea da (371 orr.).

Liburuaren azken-aurreko kapituluan demokrazia digitalaren gaia jorrazteko euskal ikerlariak bi galdera botatzen dizkigu: Sareen, Interneten, algoritmoen eta adimen artifizialaren aroan, badago bizitza demokratikorik bitartekaritza-erakundeek ematen duten egonkortasunik gabe? Egotekotan, zeintzuk izango lirarteke bere ezaugarriak? (389 orr.) Innerarityren ustez, bizi dugun aroa aldakortasunarekin ezaugarritu daiteke eta honek bereziki eragiten dio politikari eta adibide legez, alderdi politikoen krisia aipatzen du. Alderdiek jada ez dituzte betetzen Maninek (1999) esleitzen dizkien hiru funtzio nagusiak: 1. Denboran zehar eta modu iraunkorrean eta koherentean ekintza kolektiboa eraginkorra izatea. 2. Erantzukizun politikoaren erabilera erraztea. 3. Hautesleei orientazio kognitiboa ematea (394 orr.). Gaur eguneko politika, sareen aroan kokatu behar da, Internet gure praktika politikoak aldatu baititu. Innerarityren iritziz Interneten lehen efektu demokratikoa hierarkizazioarekin apurtzea da, sarea espazio publikoa horizontalizatzeko indar boteretsu baten gainean erakituta dago. Sarearen arkiteturak horizontaltasunaz gain, deszentralizazio handia du ezaugarri nagusi legez (401 orr.). Baina sareak urteak daramatza emaitzekin gutziz bat ez datozen demokratizazio-ilusioak sortzen. Informazioaren eskuragarritasuna, sekretuak ezabatzea eta botere-egiturak desegitea iragarri ziguten. Horrela, gizaratearen demokratizazioan aurrera egitea ezinbestekoa zela zirudien, gure demokrazia aspergarria berrituz edo, sarearen ondorio-rik onuragarrienak ezagutzen ez duten gizarateetan ezarritik. Baina emaitzak ez dira bete (407 orr.).

Sarearen gaitasuna aitortzeari utzi gabe, ziber utopismoaren promesak kritikoki aztertu daitezke. Online komunikazioaren izaera emantzipatzailean oinarritzen den sinesmen inozoa adibidez, bere mugak edo alde ilunak ezin baitira alboratu. Innerarityren aburuz, nahaste horiek demokrazia digitalaren ametsaren azpian dauden teknikaren, boterearen eta demokraziaren kontzeptioaren inguruan laburbildu daitezke (408-409 orr.). Euskal filosofoaren iritziz, denbora gutxian ziber baikortasunetik, tekno ardurara igaro gara, teknologia berriak trebakuntza-iturri gisa ulertu ordez, gero eta gehiago kontrol tresna gisa hartzen ditugulako (417 orr.). Ez dakigu oraindik zer ondorio ekarriko dituzten teknologia berriek gure bizitza politikoan: demokrazia hobetuko duten, aldatuko duten edo ezinezko egjingo duten. Euforiaren eta desengainuaren gorabeherak gairitzen ditugunean, agian, oraindik martxan dagoen eraldaketa bati buruzko epaia egiteko gai izango gara (418 orr.).

Innerarityrentzat mende honetako politika aldatuko duten hiru elementuak hauek dira: gero eta adimenduak diren sistemak, teknologia integratua edo gizarte kuantifikatua. XX. mendean zehar politika estatua eta merkatua orekatzeko moduari buruzko ez-

tabaidetan oinarritu da. Gaur egun aldiz, gure bizitzak makina digital boteretsuen kontrolpean lagatzen ditugun edo ez erabaki behar dugu eta aldi berean, zer neurritan artikulatu robotizazioaren, automatizazioaren eta digitalizazioaren onurak, gizartearen antolaketa demokratiakoaren arau-nukleoa osatzen duten autogobernu-printzipioekin. Teknologia horien gobernantza eratzeke modua erabakigarria izango da demokraziaren etorkizunerako. Innerarityren aburuz, bi ondorio eduki ditzake: demokrazia suntsitzea edo indartzea (419 orr).

Liburua amaitzeko, egileak hasierako ideiarri heltzen dio eta argi uzten du garai historiko bakoitzak bere gobernu-modua behar duela. Gaur egungo mundua bere konplexutasun mailaren arabera gobernatu behar da. Ezagutzaren gizarte globalak gobernuaren subjektuak eta gobernatzeko moduak bir definitzea eskatzen du (435 orr). Finean liburu honetan planteatzen zaigun auzi nagusia ezagutzan oinarritutako mundu mailako gizarte bat gobernatzeko modua ber pentsatzeko beharra litzateke. Demokraziak bere biziraupenerako eraldaketa bat behar du eta Innerarityren ustez konplexutasunean dago giltza.

Bibliografia

AHEDO, Igor. "Repensando la política desde el centro. Aportes desde la biología y la neurología". En: Ahedo, Igor y Gorostidi, Izaro, *Política Integral*. Iruñea: Pamiela, 2012, 23 - 68 orr.

ARENDR, Hanna. *¿Qué es la política?* Bartzelona: Paidós, 1997.

FOA, R.S.; KLASSEN, A.; SLADE, M.; RAND, A. and R. COLLINS. "The Global Satisfaction with Democracy Report 2020." Cambridge: Centre for the Future of Democracy, 2020.

MANIN, B. *Los Principios del gobierno representativo*. Madrid: Alianza, 1999.

Izaro Gorostidi